




# 19-25 **AZAROA** NOVIEMBRE
**› 11:00-18:00 – Okendo Plaza**

**ERAKUSKETAK**
EXPOSICIONES

## 1. Hondakina ala lehengaia?
¿Residuo o materia prima?

**Zer egiten da etxean arretaz bereizten dugun zaborrarekin? Zerbaitetarako balio al du? Hainbat hondakin lehengai gisa erabiltzen dituzten GK Recycling Gipuzkoako Birziklatze Klusterreko 9 enpresak hondakin horiekin zer material eta produktu fabrikatzen dituzten azalduko dute.**

¿Qué se hace con la basura que separamos cuidadosamente en casa? ¿Sirve para algo? 9 empresas del Clúster del Reciclaje de Gipuzkoa, GK Recycling, que tratan diferentes residuos como materia prima, mostrarán qué materiales y productos fabrican a partir de esos residuos.

Recycling
GIPUZKOA KLUSTERRA

## 2. **VI. EDIZIOA** EDICIÓN
## Ekonomia Zirkularra modelatzen
Modelando la Economía Circular

**Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikasleek ekonomia zirkularraz edo birziklapenaz duten ikuspuntua jasotzen duten artelanen erakusketa. Aurtengo sari-banaketa azaroaren 24an izango da, 11:00etan.**

Exposición de las obras de alumnos y alumnas de centros de Formación Profesional de Gipuzkoa en las que reflejan el modo en el que entienden la economía circular o el reciclaje. La entrega de premios de esta edición será el día 24 de noviembre a las 11:00 h.

SAN SEBASTIÁN SHOPS

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

# Dendatu

Ezagutu zure komunitatean eragiten duzun guztia - Descubre todo lo que impactas en tu comunidad

**21** **AZAROA** NOVIEMBRE
**› 14:00 - Hotel Londres**

---

**JARDUNALDIA DENDATU APLIKAZIOKO MERKATARIEKIN**
JORNADA CON COMERCIANTES DE LA APLICACIÓN DENDATU

---

## Ekonomia Zirkularra saltokietan
## Economía Circular en los comercios

**Dendatu tresnak jasangarritasun- eta zirkulartasun-irizpideetan oinarritutako autodiagnostiko bat egiteko aukera ematen die Gipuzkoako saltokiei, beren kudeaketa ekonomia zirkularrera egokitu ahal izateko eta trantsizio ekologikoaren erronkaren aurrean posizio lehiakorra izateko. Jardunaldian, Donostiako saltokien laguntzari eta inplikazioari esker lortutako ondorioak partekatuko ditugu.**

La herramienta Dendatu permite a los comercios guipuzcoanos realizar un autodiagnóstico basado en criterios de sostenibilidad y circularidad, para poder adaptar su gestión a una Economía Circular y posicionarse de manera competitiva ante el reto de la transición ecológica. En esta jornada, compartiremos las conclusiones obtenidas gracias a la colaboración y la implicación de los comercios donostiarras.

Naturklima
Aldaketa Klimatikoaren Gipuzkoako Fundazioa | Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa

sinnple
IMPACTO SOCIOAMBIENTAL




# 21-23 **AZAROA** NOVIEMBRE

**› Gip. Ingeniaritza Eskola - UPV/EHU**

---

**AZALPENA ETA ELKARRIZKETAK**

EXPOSICIÓN Y DIÁLOGOS

---

## WAS CIRCULAR - UNIVERSITY

**Erakusketa ibiltari honen helburua da ekonomia zirkularrari lotutako enpresa-proiektu eta enpresa-ildo estrategiko errealen bidez belaunaldi berriekin elkarrizketa bat ezartzea, emakumeek sektorerik teknikoenetan betetzen duten zeregina bultzatzea eta gazteek ekonomia zirkularra nola hautematen eta ulertzen duten jakitea.**

A través de los proyectos y líneas estratégicas empresariales reales vinculadas a la economía circular, esta exposición itinerante tiene como objetivo establecer un diálogo con las nuevas generaciones, impulsar el papel de la mujer en los sectores más técnicos, y conocer la percepción y comprensión de la juventud sobre la economía circular.

WOMEN
ACTiON
SUSTAiNABiLiTY



**22** **AZAROA** NOVIEMBRE
**› 11:30** - **Tronuaren gela, GFA** / Sala del Trono, DFG

**AITORPEN EKITALDIA**
ACTO DE RECONOCIMIENTO

## Gipuzkoako Elikagaien Bankua
## Banco de Alimentos de Gipuzkoa

**Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren "Azken Minutua" programan egindako lanagatik enpresa laguntzaileei esker ona adierazteko ekitaldia.**

Acto de reconocimiento a empresas colaboradoras por su labor en el programa "Operación Último Minuto" del Banco de Alimentos de Gipuzkoa.

Azken minutuko OPERAZIOA
OPERACIÓN ÚLTIMO MINUTO

BANCO DE ALIMENTOS DE GIPUZKOA • GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA




# 23 **AZAROA** NOVIEMBRE
**› 10:00 - LABe (Tabakalera)**

---

**JARDUNALDIA**
JORNADA

---

## Gastronomia jasangarria
Gastronomía sostenible

**Aurtengo jardunaldiaren ardatza klima-aldaketa eta elikadura-sistemarekin duen lotura da: Klima-aldaketarekin aldatu egingo al da elikatzeko dugun modua? Gastronomia-arloan zer egin dezakegu klima-aldaketari aurre egiten laguntzeko?**

El eje de la jornada de este año es el cambio climático y su relación con el sistema alimentario: ¿Cambiará el Cambio Climático la manera en la que nos alimentamos?, ¿cómo podemos contribuir desde la gastronomía a luchar contra el Cambio Climático?

inn bcc innovation
basque culinary center




**26** **AZAROA** NOVIEMBRE
**> 20:00 - Miramar jauregia**

---

**MODA DESFILEA**
DESFILE DE MODA

---

## Moda Jasangarriko VII. Desfilea
VII Desfile de Moda Sostenible

**GK Green Fashion moda jasangarriaren Gipuzkoako klusterreko kide diren diseinugileen bildumez osatutako moda-desfilea.**

Desfile de moda sostenible formado por colecciones de diseñadores miembros del clúster guipuzcoano de la moda sostenible GK Green Fashion.

AEG – UPCYCLING • AMARENAK •
DAN-TZ X SINDESPERDICIO • KYZ • EMAÚS •
GIOVANNA BITTANTE • KIBO • KOTOI • LAZA CLOTHING •
MAIDER ALZAGA • MARTA ARRITOKIETA • ROYO

Green Fashion
GIPUZKOA KLUSTERRA



**27** **AZAROA** NOVIEMBRE
**> 18:00 - Angulas Aguinaga Arena**

**KIROL JASANGARRIA**
DEPORTE SOSTENIBLE

# Anima zaitez birziklatzera Angulas Aguinaga Arena-n!
## ¡Súmate a reciclar en Angulas Aguinaga Arena!

**Nazioarteko birziklatze astea dela eta, Guuk Gipuzkoa Basketek hainbat ekintza burutuko ditu azaroaren 27an, 18:00etan, Iraurgiren aurka jokatuko duen partiduan:**

1. **Bigarren eskuko azoka txikia, taldeko jokalarien arroparekin, bildutako dirua Narturklimaren borondatezko karbono-funtsari emango zaio.**
2. **Eraikuntzako tabernetan edalontzi berrerabilgarriak jartzea eta erabiltzea.**
3. **Kantxan birziklatzearen leihaketa.**
4. **Pantaila erraldoietan birziklatzeari buruzko galderak eta sari jasangarrien zozketa.**

Con motivo de la semana internacional de reciclaje, el Guuk Gipuzkoa Basket llevará a cabo una serie de acciones en el partido del 27 de noviembre a las 18:00 contra el Iraurgi:

1. Mercadillo de segunda mano con ropa de los jugadores del equipo, donando la cantidad recaudada al Fondo voluntario de carbono de Narturklima.
2. Entrega de vasos reutilizables en los bares de la instalación y uso de los mismos.
3. Concurso de reciclaje en la cancha.
4. Concurso de preguntas sobre reciclaje en las pantallas gigantes y sorteo de premios sostenibles.

DONOSTIA GIPUZKOA BASKET

Naturklima




**1 ABENDUA** DICIEMBRE
**› 20:00 - Basque Culinary Center**

---

**AFARI SOLIDARIOA**
CENA SOLIDARIA

---

## Gipuzkoako Elikagaien Bankua
## Banco de Alimentos de Gipuzkoa

**Mahaia sukaldarien kolektiboa eta Basque Culinary Centerrekin lankidetzan, Gipuzkoako Elikagaien Bankuari laguntzeko afari jasangarri eta solidario bat antolatu dugu. Jasotzen den diru guztia Elikagaien Bankuari emango zaio. Afaria irizpide jasangarriekin egingo da: ekoizpen ekologikoa, 0 km, eta elikagaien aprobetxamendu guztia.**

En colaboración con el colectivo de cocineros “Mahaia” y el BCC, esta cena sostenible y solidaria en apoyo al Banco de Alimentos de Gipuzkoa se realizará bajo los criterios de sostenibilidad, producción ecológica, km 0 y ausencia de despilfarro alimentario y la recaudación íntegra irá destinada a esta organización.




**2 ABENDUA** DICIEMBRE
**› 13:00 – Urbil zentro komertziala**

---

**DENDA INAUGURAZIOA**
INAUGURACIÓN TIENDA

---

## CIRCULAR GREEN STORE

**Urbil merkataritza-gunearen laguntzari esker, GK Green Fashion klusterreko diseinatzaileek lehen Circular Green Store izenekoa inauguratuko dute, ingurumen- eta gizarte-ikuspegitik jasangarria den moda bat jende asko biltzen den eremu batean herritarrengana hurbildu ahal izateko. Denda “iragankor” hori abenduaren 2tik 2023ko urtarrilaren 5era arte egongo da zabalik.**

Gracias a la colaboración del CC Urbil, los diseñadores de GK Green Fashion van a inaugurar la primera Circular Green Store, para poder acercar una moda sostenible, ambiental y socialmente a la ciudadanía en una zona de gran afluencia. Esta tienda “efímera” permanecerá abierta desde el 2 de diciembre al 5 de enero de 2023.

Green Fashion
GIPUZKOA KLUSTERRA

urbil
ZENTRO KOMERTZIALA
CENTRO COMERCIAL